

# BAIGORRIKO KULTURALDIA 2015

## PRENTSA TXOSTENA



 | **NAFARRAREN  
EGUNA 2015**

**BAIGORRI**  
APIRILAREN 26A

 **berria**  **argia** **IPAR EUSKAL  
HERRIKO  
HITZA**

Basaizea kultur batasuna - Bixentainia 64 430 Baigorri -  
tel : 06 08 30 68 28 (Ramuntxo)

 [www.facebook.com/basaizea.kulturbatasuna](http://www.facebook.com/basaizea.kulturbatasuna)

[www.basaizea.com](http://www.basaizea.com)  
mail : [basaizea@gmail.com](mailto:basaizea@gmail.com)

 [twitter.com/basaizea](https://twitter.com/basaizea)



# BAIGORRIKO KULTURALDIA 2015

## 3 HITZORDU :

APIRILAREN 19an, igandea  
Goicoechea Lur ontzi saltegian, Ortzainen  
17 :00

### RUPER ORDORIKA

#### Kantaldi akustikoa

10 euro



APIRILAREN 25an, larunbata  
Baigorriko Elizan, 21 :00

### « GUK ta GUK-TARRAK »

*GUKen kantu zaharrak molde berrian guk emanak*

Ikusgarri berezia, Kulturaldian bakarrik  
emana izanen dena

15 euro



APIRILAREN 26an, igandea  
Baigorriin

### NAFARROAREN EGUNA



Basaizea kultur batasuna - Bixentainia 64 430 Baigorri -  
tel : 06 08 30 68 28 (Ramuntxo)

 [www.facebook.com/basaizea.kulturbatasuna](http://www.facebook.com/basaizea.kulturbatasuna)

[www.basaizea.com](http://www.basaizea.com)  
mail : [basaizea@gmail.com](mailto:basaizea@gmail.com)

 [twitter.com/basaizea](https://twitter.com/basaizea)



# Basaizea Sar hitza

Aurten ere, Basaizea elkarteak Kulturaldi berri bat prestatu du. Baigorriko euskaldean, baina zabalago ere jendea hitz ordu horren beha da, Nafarroaren egunarekin bukatzen dena. Kulturaldia, edo denboran Kultur Astea deitua zena, 1979 urtean sortu eta orain arte irauten du.



Helburutzat du Baigorriko eskualdean euskarazko ekitaldien eskaintza forma ezberdinetan: ikusgarri, antzerki, kantaldi, eztabaida, gogoeta... Eskas bati erantzuteko sortua, garaian euskarazko sorkuntzak eta emanaldiak arrunt murrizak baitziren. Gaur egun, eskaintza anitzez aberatsagoa da baina ez dugu begi bistatik galtzen euskaraz bizi nahi badugu, horrelako ekitaldiak beharrezkoak direla eta oraindik animaleko lana gelditzen dela, euskal kulturak leku oraindik ttipiegia duelako gure lurraldean. Beraz, gure maneran eta gure ahalekin entseatzeko gira Euskal Herri barnealdean kultura biziartzen eta bazterren animatzen.

Datorren kulturaldia beraz bi asteburutan gertatuko da eta hiru gertakari proposatuak izanen dira.

## Bi hitz Basaizeari buruz :

Nafarroaren egunaz gain, urtean zehar gazteak biltzen dira herriaren bizian parte hartzeko.

Hainbat ekitaldi antolatuak dira, hala nola, hilabeteko lehen ibiakoitz, larunbat, zapatu, nesken egün, saturday... guziz, **MERKAT'IA Baigorriko Plazan goizeko 9etatik goiti.**

Lekuko mozkinak salgai, arroltze ta xingarrezko askariarekin batera! (edo xokolet esnea xingarra maite ez dutenentzat).

Ondotik, bazkaria Bixentainian goiza luzatu nahi dutenentzat!



Horrez gain, urtero **Uda Gaua** antolatua da urtarrilean, **EHko mus txapelketako** kanporaketak, Izpegiko **bizikletaldia** irailean, **Bertso afaria** abenduan, eta hainbat bilkura. Berrikitan Korrikaren abiatze gualdian ere parte hartu du Basaizeak.

Hitzordu hauek ez dira hutsetik heldu, Basaizea gogoeta eta animazio elkarte nagusia delako Baigorriin, herrikoia eta irekia, urte osoan zehar ari dena.



# Kantaldi akustikoa : Ruper Ordorika

**Apirilaren 19an, igandez, arratsaldeko 5etan.**

Igande arratsalde goxo bat pasatzeko, gomitatzen zaituztegu Ortzaizeko **Goicoechea** Lur Ontzi saltegiara, Ruper Ordorikaren abots beroa entzutera.

Duela bi urte, Andoni Egañak eta Xabier Lizaso piano joleak « Bi Arreba » ikusgarria eman zuten, Basaizeak gomitaturik, eta Goicoechea familiak onarturik, lur gorrizko ontzi erraldoien erdian. Aurten aldiz maite ditugun kantu eztiak bitartez eta gitarrak lagun, Ruperren aldi izanen da xarma berezia duen leku honetan aritzea. « *Lurrean etzanda* » bere azken diskoko kantu zenbait eta denek ezagutzen ditugu klasikoak emanen dauzkigu.

Ondotik, aperitifa alaitu bat eskainia izanen zaizue.




2013ko emanaldia Goicoechea lantegiko gela handian, « Bi Arreba »  
Andoni Egaña / Xabier Lizaso

# Guk ta Guk-tarrak ikusgarria

**Apirilaren 25an, larunbatez, 21 :00etan, Baigorriko Elizan**

GUK taldearen kantu zaharrak, molde berri batean biltzen dituen ikusgarri anitza da GUK ta GUK-TARRAK. Basaizeak eta hainbat artistak, 2015ko Baigorriko Musikaldirako espreski sortua. **Ez duzue beste nihun ikusiko !**

Goi mailako musikari klasiko osatutako **Xare/Hertz** orkestrak lagunduta, GUK-en kantu mitikoenetako batzuk emanen dituzte **Aire Ahizpak**, **Astezkenekoak** eta **Xendarineko ahizpak** Baigorrialdeko kantari taldeek. Beste kantu zonbait, berriz, orkestrak bakarrik interpretatuko ditu. **Baigorriko gaiteroen** ekarpena ere ez da faltako, eta hori guztia, **Sustrai Colina** eta **Fredi Paia** Iparraldeko eta Bizkaiko bertsolari txapeldunek bertsoz ondutako hari argumental batekin josia. Galdu ezinezko ikusgarria.



Kantuen zerrenda :

**Arrantzale / Papo gorri / Uda / Argi bila / Ekieder / Arbola gainean  
Euskotarrak gira / Zain herria zain / Laborarien auzia  
Emakume**

...

## GUK taldea



Guk taldea Iparraldean sortu zen, 1968 inguru hartan, Joanes Borda eta Beñat Sarasolaren eskutik. Urteak pasa hala ordea, Panpi Lakarrieu, Pier Paul Berzaitz, Beñat Davant eta Eneko Labeguerie elkartu zitzaizen, taldea osatuz.

Ahotsari eta gitarrei eman diote garrantzia, eta haien kantakera indartsua da, letra zorrotzak erabiltzen dituztelarik. Garai hartan Euskal Herriak bizi zuen egoera politikoa salatzea zuten helburu, erreibindikazioak zabaltea, eta kantua horretarako bitartekaria zen, arte edo estetika zehatz bat lortzeko apustua baino.

Aurkezpen ofiziala 1974ean egin zuten ikuskizun batekin ('Aita, seme, laborari').





Xare Laborategia ganbera musikarekin sorgindutako kolektibo batek sortutako lan-eremua da, interpretazio, sorkuntza, ikerketa, esperimentazio eta zabalpen artistikorako eszenatokia.

Egun hamahiru kidek osatzen dute Xare Laborategia, Musikenen formatuak (Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia) eta laborategiko lana beste ekimen eta musika garaikideko taldeekin partekatzen dutenak, hala nola, Krater, Kuraia, Espacio Sinkro eta Nou ensemble, bai eta orkestra sinfoniko profesionalekin ere.

Xare Laborategiak hainbat proiektutan parte hartu du sortu zenetik, besteak beste, Gasteizeko Fundación Catedral Santa Mariaren "Abierto por concierto" zikloan (2011), Bernaola Festibaleko "Interprete Gazteak" sailean (2012), edota IV. "Musikagileak" musika garaikidearen zirkuituan (2013). Zinemagintza alorrean, Txaber Fernandez Martinek Donostiako Zinemaldian estreinatutako *Debekatuta dago oroitzea* (Larreategi/Martinez, 2010) dokumentalerako idatzitako musikaren grabaketa burutu du, eta baita parte hartu ere orain gutxi aurkitutako *Gure Sor Lekua* (Madré, 1956) euskarazko lehen filmaren berrestreinaldian, Hazpainen, Joserra Senperenak emanaldirako espresuki idatzitako musika zuzenean interpretatuz. Ikusle guziak xoratuak atera ziren gelatik.

« Guk ta Guk-tarrak » ikusgarriko, kantuen moldaketak Juantxo Zeberio eta Jagoba Astiazaranek egin dituzte.

### Juantxo Zeberio

Pianista eta konposidore handia, artista ainitzekin lan egin duena, besteak beste Imanol, Benito Lertxundi, Maddi Oihenart...

Soinua :

<http://umamajuantxozeberioetxetxipia.bandcamp.com/>



### Jagoba Astiazaran

Musikene eskolako konposidore gaztea. Milaneko Expo azokako konposizio lehiaketako finalisten artean izango da 2015ko maiatzetik goiti. Mundu osotik 600 ziren hastapenean lehian eta epaimahaiak 50 konposatzaile hoberenak hautatu ditu parte hartzeko.



# Kantariak, bertsolariak eta gaiteroak

## Aire Ahizpak

Miren, Amaia eta Paxkalin Euskal Herri osoak ezagutzen ditu orain 1998an EHZ festibalaren kari lehen aldikotz « Arrosako zolan » eman zutenetik. Urepeleko hiru ahizpek beti kantatzen segitu dute, eta 2014an haien lehen diskoa, « Bidexka », argitaratu dute.

Soinua :

[http://www.kanaldude.tv/Kantapela-Aire-ahizpak\\_v2310.html](http://www.kanaldude.tv/Kantapela-Aire-ahizpak_v2310.html)



## Xendarineko Ahizpak

Urepeleko bi ahizpak, Aline eta Karine, gero eta gehiago entzuten dira eskuin eta ezker, joan den urtean Imanol kantariaren omenez egina izan zen ikusgarrian bezala.

Soinua :

[http://www.kanaldude.tv/Kantapela%2%A0-Xendarineko-ahizpak\\_v2606.html](http://www.kanaldude.tv/Kantapela%2%A0-Xendarineko-ahizpak_v2606.html)



## Astezkenekoak

Baigorriko baleako gizon talde bat, euskal kantuaren inguruan biltzea maite duena.



## Fredi Paia eta Sustrai Colina

Aurtengo Bizkaiko txapelduna eta Iparraldeko txapelduna, zer behar duzue gehiago ?



## Baigorriko Gaiteroak

Baigorri girra, ez ahantz...



# Nafarroaren Eguna 2015

Nafarroaren Eguna Apirilaren 26ean BAIGORRI-n:

Nafartar guzien, baina zabalago ere euskaldun anitzen hitz ordu nagusia da. Urte oroz bezala mezu edo lema berdinen inguruan egingen da, mugak hautsiz, nafartarren anaitasuna aldarrikatuz eta ospatuz. Egun hori elgarren artean trukatzeko parada da, orain arte egin diren laguntasunen sendotzeko baita berrien sortzeko. Ez dugu ahanzten besta horrek 30 urte baino gehiago dituela, beraz orain arte egindakoa kondutan hartuz, guk ere gure aztarna utzi nahi dugu. Belaunaldi berrien artean ere elgar ezagutza eta elkarlana beharrezkoak dira, aldarrikatzen dugun batasuna egi izan dadin.

Horretarako saiatzen gira egun erakargarri eta goxo baten prestatzea, musika, dantza, animazio desberdin, bazkari eta kolore ainitzez osaturiko egitaraua proposatuz. Programa zabal hunek belaunaldi guziak hunkitzen ditu, eta aurtengoan pundu zenbaiten barnatzea saiatu gira.

Alde batetik, **haurrentzat xoko berezi bat** sortu dugu, pailaso, puzgarri eta animazio zonbaitekin, ohartu baigira ttipientzat eskas bat bazela. Horretarako Irrien Lagunak elkartearengana joan gira. Egun osoan hor izanen dira.

Web : <http://www.irrienlagunak.com/>

Bestetik, kale giroaren hobetzeko plaza nagusiaren dispozizioa aldatu dugu eta karrikako animazioak bidertu ditugu. Baigorriat etorriko den jendeak usaiatzeko eguna ikusten ahalko du eta hona eskainiko dugun programazio aberatsa:



berria | irrienlagunak | argia | IRRIEN LAGUNAK



## Egitaraua

### Elizako plaza



10h30-11h Txalaparta

11h-11h30 Bertsolariak

11h30-12h DANTZA IKUSGARRIA

12h-13h30 **Ziganteak: Baigorri - Kilimon- Txantrea.**

**Dantzariak: Altsasu - Otsagabia – Arrola**

**Erriberako Paloteadoa**

**Basaldunak**

**Basaizearen hitza**

**Karmeleren irrintzina**

13h30-14h30 **JAUZIAK** Uztarizeko txaranga

**Uztarizeko txaranga - Ezpela - Muttiko alaiak**

**Esku lanen erakusketa**

Basaizea kultur batasuna - Bixentainia 64 430 Baigorri - [www.basaizea.com](http://www.basaizea.com)  
tel : 06 08 30 68 28 (Ramuntxo)  
mail : [basaizea@gmail.com](mailto:basaizea@gmail.com)

 [www.facebook.com/basaizea.kulturbatasuna](http://www.facebook.com/basaizea.kulturbatasuna)

 [twitter.com/basaizea](http://twitter.com/basaizea)





## Pentzea



14 :30-17 :00 **BAZKARI NAGUSIA**

Uztaritze - Kuxkuxtu - Ezpela txaranga / Ttrikitilariak /  
Kantariak / Gaiteroak / Basaizearen hitza / Karmeleren  
irrintzina

## Plaza nagusia eta inguruak



12h30-14h **KLI-K**

14h00-16h30 **TEK Elektrotxaranga / OXABI**

16h30-18h **Mutiko Alaiak**

18h-19h30 **EZPELA / KUXKUXTU**

## Plaza Nagusia



14h00-15h **H-DEN**

15h-16h **Bertso saioa (Odei Barroso, Julio Soto, Iñaki Aleman)**

16h-17h **Leihotik (Etorkizuna Kontzeptuak)**

17h-18h30 **DANTZA IKUSGARRIA :**

**Dantzariak : Altsasu - Otsagabia - Erribera**

18h30-19h30 **JAUZIAK Ezpela txaranga**

19h30-21h **KIKI BORDATXO**

21h30-23h **ERROMERIA**

## Xokoa



19h-20h30 **XUTIK**

21h-22h30 **ITZIARREN SEMEAK**

23h-0h30 **HOLAKO**

1h-2h30 **Tiri & Terry (DJ)**